

## AITZINSOLASA

Jean HARITSCHELHAR  
euskaltzainburua

Agertzera doa *Iker 8* liburua, Euskaltzaindiaren XII. Biltzarraren emaitzak zabaltzen dituena. Liburu mardul eta ederra, zortzi ehun bat orrialdekoa.

Derradan berehala XII. Biltzarra izan dela Iparraldean egin den lehena. Parada ederra zeukan Literatura batzordeak erakusteko nahi zituela gure idazle zaharrak goraiatu, biltzar nagusi bat apailatuz, Arnaud Oihenart ziberotar idazleak betetzen zuela sortzearen laugarren mendeurrena. Hortakotz Iparraldean, hortakotz Maulen eta Donapaleun, Maulen sortu delakotz Oihenart, Donapaleun ezkondu eta gehienik bizi izan delakotz.

Liburu honek erakusten duen bezala, itzal haundiko gizona zen Oihenart: legegizon, historialari, atsotitz biltzaile eta olerkari. Oihenart-en aurpegi horiek aztertuak izanak dira agertzen diren mintzaldi eta txostenetan. Horretarako, Euskaltzaindiak bildu ditu Euskal Herriko, Frantziako eta Espainiako unibertsitateetan Euskal Herriari buruz ikertzen ari diren erakasleak. Orotara, hogeita hamar baino gehiago, artikulak sakonak eskaini dituztenak. Har ditzatela gure goresmenik beroenak.

Ez da bakarrik Euskaltzaindia Unibertsitate ikasle-ikerleen biltzaile; jadanik Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Bordeleko Unibertsitatearekin (U.R.A. 1055) sinatu ditu hitzarmenak. Bi unibertsitate horiekin jokatu da, haien diru laguntza eta babesa lortuz. Eskerrak zor zaizkie.

Lehen aldikotz, biltzar horretaz baliatuz, Euskaltzaindiak herri, erakunde eta botere publikoen babesa ere ardietsi du: horiek dira Maule eta Donapaleuko udalak, Ziberoko Sindikata, departamenduko Kontseilu orokorra eta D.R.A.C. (Direction Régionale de l'Action Culturelle) Kultura Minixteritzaren Akitaniako adarra. Nahi ditut hemen agurtu eta eskertu.

Ene eskerrik zintzoenak merezi dituzte Maule eta Donapaleuko XII. Biltzar nagusiaren antolatzaileek: batzorde akademiko eta batzorde eragileko kideek, ahantzi gabe prentsa-bulegoko langileak.

Jalgitzen da kanpora liburu gotor hau. Erakusten du Euskaltzaindiaren lana, euskaraz, euskal literaturaz, euskal historiaz, hots, hitz batez euskal kulturaz arduratzen direnak ez direla debaldetan lanean ari. Azaltzen du liburu honek eusko-ikerketara, sekular baino indartsuagoa eta emankorragoa.

Aurrera doa Euskaltzaindia. Segi beza urratu duen ildotik, euskara eta euskal kulturaren inguruan dauden indar guziak bilduz.

## AVANT PROPOS

Jean HARITSCHELHAR  
Président d'Euskaltzaindia

*Iker 8*, livre des Actes du Congrès Oihenart, publie les contributions de ceux qui participèrent au XIIème congrès d'Euskaltzaindia, un beau et imposant ouvrage de plus de huit cents pages.

C'est le premier congrès organisé par Euskaltzaindia en Pays Basque Nord, excellente occasion pour la Commission de Littérature de montrer que l'un de ses buts est de rendre hommage à nos auteurs classiques, en l'occurrence Arnaud d'Oihenart, écrivain souletin, pour le quatrième centenaire de sa naissance. D'où le choix du Pays Basque Nord, de Mauléon et Saint-Palais, Mauléon lieu de sa naissance, Saint-Palais où il s'est marié et a longtemps vécu.

Ainsi que le montre ce livre, Oihenart était un homme de grande envergure, avocat, homme public, historien, parémiologue et poète. Toutes les facettes de l'oeuvre d'Oihenart ont été étudiées au cours de conférences et de communications qui paraissent dans cet ouvrage. Pour ce faire, Euskaltzaindia a réuni les enseignants-chercheurs d'Universités du Pays Basque, de France et d'Espagne qui s'intéressent aux études basques. Plus de trente personnes au total, qui ont fait part de leurs recherches. Qu'elles reçoivent nos chaleureuses félicitations.

Euskaltzaindia ne se contente pas de rassembler les chercheurs en études basques; elle a signé aussi des conventions avec l'Université du Pays Basque/Euskal Herriko Unibertsitatea, ainsi qu'avec l'Université de Bordeaux III, par l'intermédiaire de son équipe de recherche associée au C.N.R.S. (U.R.A. 1055) qui, en outre, lui ont apporté leur contribution financière. Des remerciements leurs sont dus.

Pour la première fois, grâce à ce congrès, Euskaltzaindia a tissé des liens avec des villes, des collectivités territoriales et les pouvoirs publics: les villes de Mauléon et Saint-Palais, le Syndicat de Soule, le Conseil Général des

Pyrénées-Atlantiques et la Direction Régionale de l'Action Culturelle, antenne régionale du Ministère de la Culture. Nous tenons à les saluer et à les remercier de leur aide.

Les organisateurs du XIIème congrès méritent aussi les plus sincères remerciements: les membres de la commission académique responsable du programme, les membres de la commission d'organisation, ainsi que le bureau de presse, qui ont rempli leur rôle à souhait.

Cet imposant ouvrage voit le jour. Il montre le travail d'Euskaltzaindia, il montre aussi la qualité des travaux des chercheurs en linguistique, littérature et histoire basques, de ceux qui s'intéressent à la culture basque, la recherche en ce domaine s'avérant de plus en plus solide et féconde.

Euskaltzaindia va de l'avant. Puisse-t-elle suivre le sillon qu'elle a tracé, rassemblant autour d'elle les forces vives des passionnés de langue et culture basques.